

Olentzero maitea:

Nola aldatzen diren gauzak kamarada! Sarritan kantatzen zidan aitak abesti hura, "Hertzainak" taldearena. Txikitan denbora luzea pasatzen genuen elkarrekin, eta lanera eramaten ninduen askotan. Gabero ipuinak kontatzen zizkidan, ni lo geratu arte...

Baina ... Nola aldatzen diren gauzak, kamarada! Lanetik bota zutenetik ez du ezer egiten, edan eta jan baino ez. Langabezian dagoela eta gaur egun lana topatzea oso zaila dela dio, baina hori ez da aitzakia ...

Alfer hutsa bihurtu da. Alkoholaren maitale eta bizioaren munduan murgildurik, jada ez dit ipuinik kontatzen, ezta nirekin denbora pasatzen. Honela nahiago dudala uste dut ...

Batzuetan beldur naiz, batez ere gauez. Beldur naiz aita gau osoa kaleko tabernetik ibili ondoren, etxera iristean. Mozkor-mozkor etortzen da, ardo eta txizaren usaina darizkiola.

Aita etxeratzen dela ikusten, korrika joaten naiz nire gelara, ikusi ez nazan eta ahal dudan eta isilen egoten naiz, argi guztiak itzalita ditudala ... Baina amak ezin du horrelakorik egin.

Bera ezin da ezkutatu, ezin da ohe azpian jarri eta ezin du ezer gertatzen ari ez balitz bezala jokatu. Amak aurre egin behar dio, berarekin aurre-aurre egon behar da.

Amagatik beldur naiz. Munstro horrek amari zer egingo dion beldur. Gau horietan batez ere, oso agresiboa egoten denean, amaren oihuak entzuten ditut nire gelatik.

Beraz, Olentzero maitea, nola aldatzen diren gauzak, kamarada! Mesedez eskatzen dizut aurten ezer ez ekartzeko, baizik eta aita eramateko. Eraman ezazu mendi tontor batera, Antartidara edo infernura, berdin zait baina eramanez, mesedez.

Eta, non aurkitu ez badakizu, etorri etxera. Egongelako sofán egongo da, garagardo bat edaten, edo zigarrilloak erretzen. Eta ez baduzu etxean aurkitzen, begira ezazu kaleko tabernetan, han egongo da ziur.